


Ilustratzailea: MARKO

cc BY NC ND

# 21. PEIO ETA MADDI

Peio eta Maddi,
lilien biltzera abian dira :
- Egun on Peio !
- Egun on Maddi !
Xeila[1] idek, xeila hets :
krik, krak !
Gorria, urdina, liranja[2]...
Bainan muuu !
Xeila idek, xeila hets :
krik, krak !
Bihar berriz joanen gira.

[1] *kereta, keheila, xehela.*
[2] *laranja*

Peio eta Maddi,



lilien biltzera abian dira :



- Egun on Peio !



- Egun on Maddi !




Xeila idek, xeila hets :



Gorria, urdina, liranja...



Bainan muuu !




Xeila idek, xeila hets :



Bihar berriz joanen gira.

*Bi erakusleak parez-pare emanik goiti eta beheiti egin aldizkatuz.*
*Bi erakusleek elgarri potta[1] eman (bi aldetarik).*
*Bi eskuen erhi[2] puntak bekoz-beko eman, eta xeilaren idekitzeko eta hesteko alegia egin.*
*Lilien biltzeko keinua egin, pototsaren eta erakuslearen puntak bilduz. (Lili bakoitzarentzat mugimendu bat).*

*Buruan, bi erakusleak xut eman.*
*Bi erakusleak parez-pare emanik goiti eta beheiti egin, lasterrago aldizkatuz, eta zangoekin lurra joz.*
*Bi eskuen erhi puntak bekoz-beko eman eta xeilaren idekitzeko eta hesteko keinua egin.*
*Erakuslearekin zirkulu erdia bertikalki egin.*

[1] *musu*
[2] *hatz, behatz.*

Gainerako ustiapen pedagogikoarentzat, ikus gidaliburuko **25.** orrialdea.

© IKAS



Ilustratzailea: MARKO

BY NC ND

# 21. PEIO ETA MADDI

Peio eta Maddi,
lilien biltzera abian dira :
- Egun on Peio !
- Egun on Maddi !
Xeila[1] idek, xeila hets :
krik, krak !
Gorria, urdina, liranja[2]...
Bainan muuu !
Xeila idek, xeila hets :
krik, krak !
Bihar berriz joanen gira.

[1] *kereta, keheila, xehela*
[2] *laranja*